

## BESTELAKO XEDAPENAK

ELIKADURA, LANDA GARAPEN, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

### 751

*EBAZPENA, 2024ko abenduaren 8koa, Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako sailburordearena, zeinaren bidez 2024ko irailaren 13ko Ebazpena aldatzen baita. Ebazpen horren bidez, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren martxoaren 5eko Aginduaren babesean eskatutako laguntzak eman eta ukatzen dira (2024ko martxoaren 5eko Agindua, Euskal Autonomia Erkidegoko landa-eremuak sustatu eta garatzeko laguntzen deialdia –Erein Programa– egiten duena 2024ko ekitaldirako).*

2024ko apirilaren 2ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariko 64. zenbakian, martxoaren 5eko aginduan jasotako deialdia argitaratu zen. Deialdi horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko landa-eremuen sustapenari eta garapenari bideratutako laguntzak arautzen ziren.

2024ko irailaren 13an, Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako sailburuordeak goian aipatutako deialdia ebatzi zuen, eta 11.655.978,14 euroko laguntzak eman zituen. Zenbateko horretatik, 5.193.144,41 euro kofinantzatuta daude: LGENF funts komunitarioak % 80 jartzen du (4.154.515,53 euro) eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak % 20 (1.038.628,88 euro). Gainerakoa, 6.462.833,73 euro, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura ematen da, Batzordeak 2023-2027 aldirako Nekazaritza Politika Erkidearen Plan Estrategikoan (NPEPE) onartutako finantzaketa osagarri nazional gisa.

Honela dio goian aipatutako martxoaren 5eko aginduaren 12. oinarriko 5. apartatuak, Balorazio Batzordearen Txostenari buruzkoak: «Dirulaguntza ematen den egunetik hiru hilabeteko epean emandako zenbatekoak gutxitzen badira edo dirulaguntza-eskubideari uko egiten bazaio, egoera horiek eragindako zenbatekoak esleituko zaizkie, hurrenkera zorrotz errespetatuta, krediturik eza-gatik onartu ezin izan diren eskabideei, aplikatzekoa den aurrekontu-araudian ezarritako mugak kontuan hartuta».

Hala, ebazpen hau eman den egunera arte, eta aginduan ezarritako epearen barruan, hiru uko-egite izan dira. Hiruren zenbatekoen arteko batura, guztira, 557.992,58 euro da, eta LGENF funts komunitarioak kofinantzatzen du. Balorazio-batzordeak egindako ebazpen-proposamenaren arabera, zenbateko hori aplikatu behar zaio, batetik, aurrekontua agortu zelako proposatutako guztizko zenbatekoan finantzatu ezin izan zen espedienteari (Legazpiko Udalari dagokio), eta, bestetik, kreditu faltagatik diruz lagundu ez ziren hamar espedienteri. Gainera, Balorazio-batzordeak ordena bat ezarri zuen lortutako puntuaren arabera, eta esleipen berrian ordena hari jarraituko zaio, egindako proposamenean agertzen den bezala, zenbateko berria agortu arte.

Hori guztia ikusita, Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako zuzendariak, 13. oinarriko 2. apartatua aplikatuz, laguntza emateko behin betiko bigarren ebazpen-proposamena egin du, 2024ko azaroaren 25ean. Proposamen horretan, hauek adierazten dira: dirulaguntza ematea proposatzen den eskatzaileen zerrenda, zenbatekoa, ebaluazioa eta dirulaguntza emateko jarraitu diren balorazio-irizpideak.

Horiek horrela, aukera hori gauzatu ahal izateko aurrekontu-itxierako zirkularrak ezarritako epeak kontuan hartuta, eta inguruabar horren ondorioz LGENF funts komunitarioak kofinantzatutako 557.992,58 euro erabilgarri daudela kontuan hartuta, hau

## EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– 2024ko irailaren 13ko Ebazpenaren I. eranskineko 86. idazpena aldatzea (2024ko irailaren 13ko Ebazpena, Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako sailburuordearena, zeinaren bidez eman eta ukatu egiten baitira Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2024ko martxoaren 5eko Aginduaren babesean eskatutako laguntzak; agindu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko landa-eremuak sustatu eta garatzeko laguntzen deialdia –Erein programa– egiten da 2024ko ekitaldirako). Horren ondorioz, honela idatzita geratzen da 86. idazpena:

	Espediente-zenbakia	Sozietatearen izena	Proiektua	Diruz lag. Inb. (eurotan)	2024an emandako laguntza (eurotan)	2025ean emandako laguntza (eurotan)
86	00121-ERE2024-60	Legazpiko Udala	Legazpiko landa-bide publikoko argiteriaren berriztapen eta hedapena	89.101,01	4.811,45	3.207,64

Bigarrena.– 2024ko irailaren 13ko Ebazpenaren I. eranskina aldatzea (2024ko irailaren 13ko Ebazpena, Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako sailburuordearena, zeinaren bidez eman eta ukatu egiten baitira Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2024ko martxoaren 5eko Aginduaren babesean eskatutako laguntzak; agindu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko landa-eremuak sustatu eta garatzeko laguntzen deialdia –Erein programa– egiten da 2024ko ekitaldirako). Horretarako, idazpen hauek erantsiko zaizkio:

	Espediente-zenbakia	Sozietatearen izena	Proiektua	Diruz lag. Inb. (eurotan)	2024an emandako laguntza (eurotan)	2025ean emandako laguntza (eurotan)
147	00064-ERE2024-60	Eskoriatzako Udala	Eskoriatzako Marin, Eraña (Bolibar) eta Gellao elizateetako argiteriaren hobekuntza	71.999,92	3.715,20	2.476,80
148	00090-EREI2024-60	Orioko Udala	Orioko San Martin bideko azpiegiturak lurperatu eta azpiegitura berriak hornitzeko lanak: IV. fasea	174.993,91	6.810,00	4.540,00
149	00092-ERE2024-60	Gamiz-Fikako Udala	Reposición de la red de abastecimiento en el barrio Ergoien de Gamiz-Fika: fase 5	226.185,17	11.760,00	7.840,00
150	00119-ERE2024-60	Andoaingo Udala	OTIETAnBAI proiektua	109.998,50	10.298,19	10.001,81
151	00144-ERE2024-60	Arratzuko Udala	Proyecto de implantación y mejora del alumbrado público	149.665,96	7.902,36	5.268,24

2025eko otsailaren 17a, astelehena

	Espediente-zenbakia	Sozietatearen izena	Proiektua	Diruz lag. Inb. (eurotan)	2024an emandako laguntza (eurotan)	2025ean emandako laguntza (eurotan)
152	00169-ERE2024-60	Mendaroko Udala	Azpilgoeta auzoko argiterian led sistema ezartzeko hornikuntza-eta instalazio-lanak	61.716,05	3.184,55	2.123,03
153	00199-ERE2024-60	Errezilgo Udala	Errezilgo herrigunea 18ko eraikina erabilera anitzetarako egokitzeko proiektua	89.805,02	4.741,71	3.161,14
154	00203-ERE2024-60	Abanto y Ciérvena-Abanto Zierbenako Udala	Centro sociocultural en las antiguas escuelas del Campillo	204.331,34	10.543,50	7.029,00
155	00211-ERE2024-60	Aramako Udala	Aramako herrigunea oinezkoentzako gune bilakatzea: herrigunean eremu berria sortzea, I.fasea	237.758,37	11.988,00	7.992,00
156	00229-ERE2024-60	Bernedoko Administrazio Batzarra	Dotación de mobiliario al centro social	28.432,63	1.501,24	1.000,83

Hirugarrena.– 2024ko irailaren 13ko Ebazpenaren II. eranskina aldatzea (2024ko irailaren 13ko Ebazpena, Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako sailburuordearena, zeinaren bidez eman eta ukatu egiten baitira Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2024ko martxoaren 5eko Aginduaren babesean eskatutako laguntzak; agindu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko landa-eremuak sustatu eta garatzeko laguntzen deialdia – Erein programa– egiten da 2024ko ekitaldirako). Horretarako, idazpen hauek erantsiko zaizkio:

	Espediente-zenbakia	Sozietatearen izena	Proiektua	Diruz lag. inb. (eurotan)	2024an emandako laguntza (eurotan)	2025ean emandako laguntza (eurotan)
90	00064-ERE2024-60	Eskoriatzako Udala	Eskoriatzako Marin, Eraña (Bolibar) eta Gellao elizateetako argiteriaren hobekuntza	71.992,92	14.860,78	9.907,19
91	00090-EREI2024-60	Orioko Udala	Orioko San Martin bideko azpiegiturak lurperatu eta azpiegitura berriak hornitzeko lanak: IV. fasea	174.993,91	27.240,00	18.160,00
92	00092-ERE2024-60	Gamiz-Fikako Udala	Reposición de la red de abastecimiento en el barrio Ergoien de Gamiz-Fika: fase 5	226.185,17	47.040,00	31.360,00

2025eko otsailaren 17a, astelehena

	Espediente-zenbakia	Sozietatearen izena	Proiektua	Diruz lag. inb. (eurotan)	2024an emandako laguntza (eurotan)	2025ean emandako laguntza (eurotan)
93	00121-ERE2024-60	Legazpiko Udala	Legazpiko landa-bide publikoko argiteriaren berriztapen eta hedapena	89.101,01	19.245,82	12.830,54
94	00144-ERE2024-60	Arratzuko Udala	Proyecto de implantación y mejora del alumbrado público	149.665,96	31.609,45	21.072,97
95	00169-ERE2024-60	Mendaroko Udala	Azpilgoeta auzoko argiterian led sistema ezartzeko hornikuntza-eta instalazio-lanak	61.716,05	12.738,19	8.492,13
96	00199-ERE2024-60	Errezilgo Udala	Errezilgo herrigunea 18ko eraikina erabilera anitzetarako egokitzeko proiektua	89.805,02	18.966,82	12.644,54
97	00203-ERE2024-60	Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbenako Udala	Centro sociocultural en las antiguas escuelas del Campillo	204.331,34	42.173,99	28.115,99
98	00211-ERE2024-60	Aramako Udala	Aramako herrigunea oinezkoentzako gune bilakatzea: herrigunean eremu berria sortzea, I. fasea	237.758,37	47.952,00	31.968,00
99	00229-ERE2024-60	Bernedoko Administrazio Batzarra	Dotación de mobiliario al centro social	28.432,63	6.004,97	4.003,31

Laugarrena.– 2024ko irailaren 13ko Ebazpenaren III. eranskina aldatzea (2024ko irailaren 13ko Ebazpena, Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako sailburuordearena, zeinaren bidez eman eta ukatu egiten baitira Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2024ko martxoaren 5eko Aginduaren babesean eskatutako laguntzak; agindu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko landa-eremuak sustatu eta garatzeko laguntzen deialdia – Erein programa– egiten da 2024ko ekitaldirako). Horretarako, idazpen hauek ezabatuko zaizkio:

	Espediente-zk.	Sozietatearen izena	Proiektua	Ukatzeko arrazoia
10	00064-ERE2024-60	Eskoriatzako Udala	Eskoriatzako Marin, Eraña (Bolibar) eta Gellao elizateetako argiteriaren hobekuntza	Aurrekontuan dirurik ez dago
15	00090-ERE2024-60	Orioko Udala	Orioko San Martin bideko azpiegiturak lurperatu eta azpiegitura berriak hornitzeko lanak: IV fasea	Aurrekontuan dirurik ez dago
17	00092-ERE2024-60	Gamiz-Fikako Udala	Reposición de la red de abastecimiento en el barrio Ergoien de Gamiz-Fika, fase 5	Aurrekontuan dirurik ez dago

	Espediente-zk.	Sozietatearen izena	Proiektua	Ukatzeko arrazoia
25	00119-ERE2024-60	Andoaingo Udala	OTIETAnBAI proiektua	Aurrekontuan dirurik ez dago
30	00144-ERE2024-60	Arratzuko Udala	Proyecto de implantación y mejora del alumbrado público	Aurrekontuan dirurik ez dago
38	00169-ERE2024-60	Mendaroko Udala	Azpilgoeta auzoko argiterian led sistema ezartzeko hornikuntza- eta instalazio-lanak	Aurrekontuan dirurik ez dago
47	00199-ERE2024-60	Errezilgo Udala	Errezilgo herrigunea 18ko eraikina erabilera aniztarako egokitzeko proiektua	Aurrekontuan dirurik ez dago
48	00203-ERE2024-60	Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbenako Udala	Centro sociocultural en las antiguas escuelas del Campillo	Aurrekontuan dirurik ez dago
53	00211-ERE2024-60	Aramako Udala	Aramako herrigunea oinezkoentzako gune bilakatzea: herrigunean eremu berria sortzea, I. fasea	Aurrekontuan dirurik ez dago
57	00229-ERE2024-60	Bernedoko Administrazio Batzarra	Dotación de mobiliario al centro social	Aurrekontuan dirurik ez dago

Bosgarrena.– Deialdia egiten duen aginduaren 15. oinarriaren 5. apartatuan xedatutakoaren arabera, interesdunak gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango dio landa-garapenaren arloan eskumena duen saileko titularrari, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, edo edozein unetan, administrazio-isiltasunak ondorioak izan eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 122. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko abenduaren 8a.

Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako sailburuordea,  
RAÚL PÉREZ IRACHETA.